

«Un príncipe llamado Ordoño, que intentó robar sus libertades al pueblo vasco, fué muerto por **Jaun Zuria**, el primer Señor de Vizcaya»  
(Antonio de Trueba)

«...haiñ **gorri**, nola eskarlata; haiñ **beltz** nola tindia; eta haiñ **xuri** eta garbi nola baita bortüko elürra gertatzen dira iturri saindü hartan gure bekatuak»  
(Juan Tartas)

«Belea ikuz daite **churit** ez daite»  
(Inchauspe zuberoarra)

«**Zuri**» esango zienat  
«paltso» esatea bezela baita.  
(Orixe)

Victor Turner ikerlariak frogatua duenez<sup>1</sup>, gizarte primitiboetako sinbologia guziaz hiru kolore (**zuria-gorria-beltza**) nagusitan ematen omen da, aldi berean, hiru koloreek elkarren artean binaka uztartzen direlarik, giza gogoaren iduripen dialektikoak adierazteko. Izanez ere, biren artean sortzen baita amodioa, gorrotoa, haragi grina, burruka, espa, adiskidetasuna eta beste oinarritzko giza harreman asko. Horregatik, giza moralak asmatutako alderdi on eta gaitz guziaz, kolore **zuria** ala **gorria** edota **zuria** ala **beltza** elkarren kontra buruz buru jarriaz adierazten omen dira gizarte primitiboetako errito guziaz.

Dena den, Turner eredutzat hartuz, koloreen sailkapen hirukoitz nagusi honetaz Joseba Sarrionandiak eginak dituen gogoeta interesgarri batzuk ekarri nahiko nituzte honara. Besteren artean, honela dio «Koloreen sailkapen primitiboa» deituriko idazlanean<sup>2</sup>:

«Gizarte primitiboen erritualetako sinbolismoan koloreena omen da sinbolismo garrantzitsuenetariko bat, munduaren sailkapen eta imajina berezia ematen duelako. Zambia aldeko ndembu tribuetan hiru kolore erabiltzen dira: zuria, gorria eta beltza. Koloreen sailkapen hirukoitz hori zaharra eta hedatua da munduan, Afrikan boskimanoek eta dogon izenekoek dute, esate baterako, Indonesian semang eta sakai izenekoek, Australiako tribuek ere bai, eta abar. Mundu zaharrean, hinduismo zaharreko Upanishad delako liburuetan ere koloreen sailkapen berbera irakur liteke. (...)

Hiru ibai omen dabilta munduan, gauza guzietan:

zuritasunarena, gorritasunarena eta beltzasunarena. Ibai zurikoak dira hilargia, semena, esnea, garbitasuna, osasuna, bizitza, fertilitatea, eta abar. Ibai gorrikoak dira odola, buztin gorria, bizitza, haragia, indarra, gerla, lehoia eta beste. Ibai beltza berriz, ikatzean, gavean, gervetan, gaisotasunean, sorginkerian, heriotzean dabil.

Kolore sailkapen hirukoitzaren erroak, Victor Turner aipatuaren arauera, gorputz esperientzian daude, eta honetaz oso interesgarria da Upanishad delako liburuetatik batean ageri den hiru koloreen azalpen fisiologikoa. Janariak, liburu zaharrak dakarrenez, irenstean hirukoitz egiten dira, beren alderik arruntena gerru bihurtu eta isurtzen da, horixe da alde beltza, beste alde bat odol bihurtu eta gorputzean geratzen da, horixe da kolore gorria, eta janarien hirugarren alde, garbiena eta finena, zuria halegia, izpiritu bihurtzen da».

Nik, ekialdeko mistizismo kutsua kendu eta begibistako naturalismo lurtarragora bihurtuz, honelatsu zehaztuko nituzke Josebak atzenean Upanishad delako liburu zahar horietatik ateratzen dituen ondorioak. Guk irensten dugun janaria ezezik, munduko edozein izaki bizidunak bereganatzen duen elikaduraren alderdirik eskasena ere, beti ondakin edo **gorotz** bihurtzen da, horra hor kolore **beltza**; beste alderdia **odol** bihurtzen da, gorputz bizidunari indar emateko, horra hor kolore **gorria**; eta gorputz bizidun horren mailarik gorena, bere **hazia**, bizi berritarako lehengaia, bizimuina, horra hor kolore **zuria**. Eta hara osatu, inolako izpiritu goitarrik eta mistizismorik gabe, bizitzaren eratzuna ixten duten hiru kolore nagusien zirkulu etenik gabea. Zeren, gero kolore **zuria**, **hazia**, kolore **beltzak**, **gorotzak** ongarrituko bait du, eta **hazia** gizendu ahalean **odol** bihurtzen joanen baita, kolore **gorria** bereganatuz eta indartzuz, eta horrela in saecula saeculorum: hiru koloreen elkar hornitze etengabeak osatuko du bizitzaren eratzun urdina.

Kolorearen sailkapen hirukoitz honekin segituz, beste gauza harrigarria, lur biribil honetako gizaki moeta desberdinak elkarrengandik bereizteko ere batipat hiru kolore nagusi horiek erabili izana da: **larru zurikoak**, **larru beltzekoak**, eta **larru gorri** edo **horikoak**. Mendebaldeko kultura kristau zuriak kasikasik aberetzak jo izan ditu **larru beltzekoak** oraintsu arte, eta oraindik ere kristau kutsu zuriko arrazismo horrek irauin egiten du kultura mendebaldarreko jende askoren gogoan. Zer esanik ez

Ipar Ameriketako **larru gorri**ko indigenekin gertatu denaz. Nere lagun batek esaten duen bezala: «**larru zurikoa izan da arrazarik faltsoena eta ergelena**»

Egia da, historiari begiratzen badiogu, bere burua jaingo egitearren izpiritu barrenuts goitarrik asmatu gabe, bere ingurubileran hobekienik egokitu den eta bere burua beste izaki guzien pareko eginez kosmogonia natural baten barruan kokatu diren gizaki bakarrak **larru beltzekoa** eta **larru gorri**ko izandu dira. Ekialdeko **larru horia**, azken batean, ekialdeko erlijioen sorrerak **larru gorri**ko jendea ahultzean sortua da, eta kristautasuna, izatez, ekialdeko erlijio zaharren zikinondarrez osatua baizik ez da; hori ahulduagoa, **zuria**, alegia. Beraz, **larru zuriko** gizakia, guziz gizaki modernoa eta faltsoa da. Batere bizi indarririk gabea, naturaltasunik gabea eta benazkotasunik gabea. Bere lurrekiko eta inguruarekiko harreman funtsezko guziaz galdutako gizakia.

Hona Txomin Garmendiaren bertsoa, munduko hiru zaizkiak elkarrenganako darabilgun gataxka xikina epaitzera datorrena:



Nundik sortu da emen  
ainbeste inbiri?  
Alkar ondatutzeko  
tranpa eta ziri?  
Anaiak omen gera  
**Beltz, gorri ta zuri**  
Gure bizimoduak  
Ala ez diruri.



Berriz ere koloreen sailkapen hirukoitz honi ekinez, euskal usario zaharrean ere gauza bera gertatu izan dela frogatu du Mikel Azurmendik, eta horretarako euskal lokuzio, erretrau, esamolde eta hizkuntz eredu tradizionalen koloreak nola erabili diren aztertzen du<sup>3</sup>. Konparazio batera, esaten du: ilajea edo bizarjea euskaldunontzako **zuria**, **gorria** eta **beltza** baizik ez dela izandu; eta esaera zahar hauek ematen ditu eredutzat:

Gizon bizar **beltz**: horri bidea (atea) erts  
Gizon bizar **gorri**: ez fida horri (aldara bidetik horri)  
Gizon bizar **zuri**: tirrit horri (kasurik ez horri)

Gauza berbera esan liteke, **kaskazuri**, **kaskagorri** eta **kaskabeltz** hitzen erabilera usuari buruz. Baina jendearen larrujea ezezik, arropajea ere halatsu egiten ote zen nago ni. Hara, horren lekuko, «*Erregea Jan*» izeneko euskal





balada xahar baten pasarteak:

Ene ama, othoi, errazu  
zer zaia ezar behar dudan.  
Zaia **xuri** edo **gorria**?  
Edertziago da **beltza**.



Gisa berean, abereak ere aintzina hiru kolore nagusitan banatzen ziren: behiei **abelgorri**, zerriei **azienda beltz** edo **ganadu beltz**, eta ardiei **azienda xuri** edo **abeltxuri** deituz<sup>4</sup>.

Haizeari ere, segun eta nolako, hiru kolore nagusi horiek ematen zaizkio: **haize xuria**, eguzki haize goxoari, **haize beltza**, mendebaldeko trumoi haizeari, eta **haize gorria**, hormaize hotzari, deitzen zaio oraindik euskal herri osoan.

Lur eta harri moeta nagusiak ere hiru kolore nagusi hauek ziren. Buztin edo tuparrizko lurra: **lur gorria**; harbel edo lapitzezko lurra: **lur beltza**, eta azkenik, karaitz edo kisuarrizko lurra: **lur zuria**. Azkuek berak jasotzen ditu **lubeltz** eta **lugorri** hitzak; eta horien ondoan **luzuriaga**, eta antzeko tokizen eta abizen ezagunak paratuz, osatua genuke gure kolore zahar nagusien hirukotea.

Beste hainbeste erakusten du urak, eta ez ahaztu elementu funtsezkoak ditugula aipatan: haizea, lurra, ura. Ez gerala, alegia, atzo goizeko kontutaz ari. Horra bada, uraren hiru kolore nagusiek gure usuario zahararen utzi duten aztarna: **Urbeltz** nork ez du ezagutzen; **ur gorria**, zenbait lekutan *burni ura* ere deitzen diotena. Esate bateko, Leitxan, Txaragorriko iturriko ura, garai batean herriko eta inguruko gaitz guziak sendatzen zituen, *ur gorria* da, *burni ura*; eta azkenik, **urzuriaga**, tokizen eta abizen ezaguna duguna.

Hor ditugu, hurrenez hurren, hiru harri klase desberdinen aztarnak ere: **harri gorria**, *harrigorriaga* eta gisako tokizena lekuko; **harri beltza**, *harbeloa*, *harbelaitz* eta antzekoak lekuko; eta **harri zuria**, *hartzuria*, *harrizurieta*, eta holakoek ederki adierazten duten bezala. Gero, noski, hiru kolore nagusi horiez gainera, *harri urdina* edo *harri nabarra* dugu euskal usuarioan maizenik ageri dena.

Zurari dagokionean ere, hara non ageri zaizkigun, **zubeltzu**, **zubeldia**, **zurbaltz**, **zurzuri**, **zurbil**,... Kolore *gorria* ez dakit non ezkututzen den zuraren kasu honetan. Ez dut zuztarren garbirik inon aurkitu. Halare, seguru naiz, ni baino begi zorrotzagoren batek nonbait aurkitu baietz; gaugeru aurkitua ez badu ere. Dena den oso nabaria da euskal usuarioko koloreen hirukoiztasun nagusi hau. Hona beste lekukotasun zahar batzuk errezkan:

HIATZA : aizpeleta, aizkorri, atxuri.  
MENDIA: mendibeltz, mendizuri, mendigorri.  
HORMA : hormazuri, hormabeltz, hormagorri.  
LARREA: larragorri, larrabeltz, larrazuri.  
MUINOA: muñagorri, muñazuri, muñabeltz.

ITURRIA: iturbalzaga, iturzurieta, iturgorriaga.  
SAGARRA<sup>5</sup>: sagastibeltza, sagarzurrieta, sagargorri.  
etabar, etabar, etabar, ...

P. Larzabal, Zokoako erretora antzerki idazle aspergaitzak ere, *Euskaldunak eta Koloreak* izeneko lantxoan, hala aitortzen zuen<sup>6</sup>:

«Nere iritiz, euskal etorkiari sakonkienik lotuak diren koloreak dira hiru: **beltza**, **xuria**, eta **gorria**. Euskalki guzietan hitz beraz eta bakarraz izendatzen ditugu hiru kolore horiek.

(...)Gure etxe zaharren izendegian hiru kolore horietaz bertzerik ez da kasik ezagutzen:

**Etxexuri** (Xurinea)  
**Etxegorri** (Gorrinea)  
**Etxebeltz** (Beltzenea)



(...) Soinuak ere koloratuak. Asko soinuri ematen diotegu hiru kolore horietarik bat. Ez bertzerik. Abidibez:

**Oihu beltzak**  
**Kalapita gorrian**  
**Ele xuriak.**

(...) Erljioan eta Politikan ere:

**Sabel xuri**, **Sabel gorri**  
**Xapel gorri**, **Beltzak**,  
**Xuriak** eta **Beltzak**  
**Satan Beltza**, **Galtzagorri**  
**Aingeru xuriak**,  
**Sorgin begigorriak.**



(...)Xuxen edo makur izan dadien nere azken iritzi hau, ezin ukatua dena da».

Euskal izendegi zaharretan edo mitologikoetan begiratzen badugu ere, kolore hirukoitz horixe bera aurkituko dugu nagusi, bai gizaki bai emazteki izenetan: **Beltza**, *Beltxe / Beltzane*, *Beltxane*; **Gorria** / *Gorritiz*, *Gorriza*, **Gorriñe**; **Zuri**, **Zuriko** / *Zuria*, *Andra Mari Zuria*, **Zuriñe**. Eta gero, beti bezela, euskal usuarioan maizenik ageri diren beste bi koloreak: **Urdin**, **Urdintxo** / *Urdina*, **Urdiñe**; **Nabar**, **Nabarko**, *Nabarto* / **Nabarne**, *Nabarra*.

Horik horrela direlarik, J.M. Satrustegiren izendegian datozen **Berdaitz**, **Berdoi**, **Berdot** eta antzeko izenek ba ote dute deus ikustekorik kolore berdearekin? Horra hor nere zalantza.

Hiru kolore nagusi hauen lekukotasuna abereetan ere hogitz nabaria da. Hara zer dioen, esate bateko, Duvoisinek bere idazlan beti xoragarri horietarik batean, idiaz ari delarik<sup>7</sup>:

«Semeak.- Entzuten dut erraiten, **koloreak** ere zerbait erran nahi duela.

Aitak.- Gure aldetan gutiz gehienak **gorriak** dira. Diote bizkitartean **idi beltza** ona dela beti, **xuririk** balin badu hatzetan edo buruan; bertzenaz tontoa eta gogo hilekoa


dela. **Gorria** dagokate hobeentzat laneko. **Su** gehiago du bere baitarik, eta hori ez da guti, ezen badakizu *idia*azienda dorpea eta urrats hurrikoa dela. **Idi zuriak** berriz, ez dira gizentzeko baizik».

Gogoan hartzeoak direlakoan, neronek nabarmendu ditut, **kolore gorriari** suaren bitartez ematen zaion bizitasun sinbolo hori, eta baita **idi zuria** haragitako gizentzeko on izate baina laneko alfer izate hori. Geroxeago ikusiko dugu *idi zuriak* bereganatzen duen alferkeria sinbolo hori xehekiago. Dena den, lanekoazienda guzietan egiten zelakoan nago bereizkuntza hori. Esan nahi dut, azienda *kolore gorrikoak* bizienak eta langileenak, eta *kolore zurikoak* alferrenak eta motelenak bide zirela orohar euskal sinbologia zahararen, eta beste herriakotako usantzan ere bai, segurunera.

Ongi ohartu baldin bazara, hor goian J.P. Duvoisinin ahotan leitu duzun esaldi batek honela zioen: «**xuririk balin badu hatzetan edo buruan**». Koloreen gainean ari naizenez, puntu hau irazean bederen aipatu gabe ez nuke utzi nahi. Kopetean edo aztalondotan **xuriguneak** izateak dohai eta majikotasun oso bereziak ematen dizkio zenbait animaliarri euskal sinbologia. Hor dugu, *orein ointxuria*, basandereen maitasun garbiaren adierazle. Nik neronek aditua dut etxean, kopetean *izar zuri*aduten zaldiak, edo idiak, edo behiak, *dohai bereziak* izaten dituela; eta *aztalondo xuriak* lituzkenak berdin.

Hona, esate bateko Koldo Izagirreren poema batean ageri den kobla majikoa, nahi duenak aztertu sinbologiarik aski balukena:

Heriotzaren zaldia  
Lau hanketan **zuria**  
Zazpi pausotan iragaiten du  
Gure herriko zubia.



Honen sorburua eta sinbologia ere, Berdabioren leienda zaharkeko beste hartan legoke. Orixek berak hala aipatzen du *Denok Bat* poeman:

Bi zaldi gazte, lau anak **zuri**, izar **zuri** bekokia.  
Denok dakigu alaxe zala Berdabioren zaldia.

1. *La selva de los símbolos*, 65-101 orri. Ed. S. XXI, Madrid, 1980.
2. *Ni ez naiz hemengoa*, 215-218. Pamiela, Iruña, 1985.
3. *El fuego de los símbolos* 48-65 orri. Baroja, Donostia, 1988.
4. *Peru Abarka* 87. orri. Gerediaga Elkartea, 1981: «Batzuk esaten deutsee, **lauoñecua**; bestiak **belarluzia**, beste batzuk **ganau zurdaduna**; lecu askotan **ganadubaltza**; ez ain ondo, bada asco dira **zurijac** bere».
5. Gaiz harrigarri egiten zaigu **sagar beltza** edo **urdisagarra** aditzea, baina, begira zer zioen, esate bateko, Federico Garrantzaren 1917 urtean sarasaitzueraz: «Erranakokan multo bati, **sagar beltz** bat emanez: eraugi daztak arzagai errial batena». [Nafarroako Euskal Idazleak (II), 75. orri. Pamiela, 1987]
6. Euskera, Bilbao, 1975.
7. *Klasikoak. Laborantzako liburua*, 134 orri. Euskal Editoreen Elkartea, 1986.

